

AURKEZPENA

Teknologiaren aurrerapenekin batera, musika entzutea eguneroko jardura bat bihurtu da. Aldi berean, aurikularren erabilera nabarmendu egin da; ondorioz, gailu honi aldaketa eta hobekuntza batzuk egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Horretarako, “AUKA” proiektua sortu dugu, gailu honen erabilera errazteko.

Gu Eneko Alberdi, Klara Garin, Iruñe Lopez eta Eider Otamendi gara, Estralurtarrak taldearen partaide eta Urretxu Zumarragako Ikastolako lehenengo batxilergoko ikasleak.

A U K A

Gure proiektuaren helburu nagusia, aurikularrak maiztasunez erabiltzen dituzten pertsonen erraztasuna eskaintzea da, korapilatuko ez diren kabledun aurikularrak merkaturatuz. Nahiz eta gaur egun, gailu honen alternatiba asko egon, gure enpresak eskaintzen duen produktua berrikuntza handia dela esango genuke, orain arte ez bait da antzeko mekanismoa duen beste antzekoren bat sortu.

Idea hau, esperientzia pertsonal batetik sortu zitzaigun. Taldeko kide guztiak musika zaleak gara, eta aurikularrak toki guztietara eraman eta aldi oro erabiltzen ditugu. Kabledun aurikular mota ezberdinak erabili ditugu, eta beti arazo berdina aurkitu dugu: kablea korapilatzen zaigu. Arazo honi konponbidea bilatu nahian, hauek automatikoki gordetzea pentsatu genuen. Idea hau aurrera eraman genuen, gure produktua sortuz, eta bere erabilgarritasuna ikusi eta gero, jendearekin partekatzea erabaki genuen. Eta gure ideia jendeari gustatu zitzaiola ikusi genuenean, negozio aukera bikaina izan zitekeela konturatu ginenez, aukera ez galtzea erabaki genuen.